



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Basauriko Udalaren Ebazpena, Karmelo Torre kaleko 25-27-29 zenbakietako eraikinen inguruan dagoen bidearen/kalearen titulartasuna ikertzeko espedienteari hasiera ematen diona.

Basauriko Udalak, 2024ko ekainaren 27an egindako Ohiko Osoko Bilkuran, aho batez onartu zuen, gai-zerrendako 17. puntuan, bere xedapen-zatian transkribatzen den erabakia:

Lehena: Karmelo Torre kaleko 25-27-29 zenbakiak (eraikuntza-proiektuaren G eta D kaleak) inguratzen dituen bidearen titulartasuna ikertzeko espedientea hastea, usukapio edo eskuratze-preskripzioagatik lursaila eskuratu ote den egiaztatzeko, herri-jabaritasuna frogatzeko zantzetan oinarrituta, 30 urte baino gehiagoz erabilera publikoa izan duela egiaztatzearen bidez.

Deskribapena

Karmelo Torre kaleko 25-27-29 zenbakiak inguratzen dituen bidea, eta, gainera, Bidasoa kalera eta Metroaren sarrera/irteerara daramaten oinezkoentzako bideekin bat egiten duena. Luzera: 120 metro; zabalera: 10 metro (aldakorrak); azalera: 1.192,34 m²; akabera: lauzu hidraulikoko zoladura espaloian eta asfaltoa galtzadan; erabilera: erabilera publikorako irekia; hasiera: Karmelo Torre kalea; amaiera: Bidasoa kalerantz doazen oinezkoentzako bideak. Mugak: iparraldean, udal-lurrak eta oinezkoentzako bide publikoak, Bidasoa kalerantz; ekialdean, Karmelo Torre kaleko 25-27-29 zenbakietan dauden komunitateen lurrak; mendebaldean, Karmelo Torre kaleko 15-17-19-21-23 zenbakietan dauden komunitateetako partikularren lurrak; hegoaldean, Karmelo Torre udalerriko kalea.

Katastroko egoera

Katastroan egon ezin daitekeen eremua, aprobetxamendu publikoko eta doako espazio libreak direlako.

Erregistroko egoera

3979 zenbakiko finka matrizea, 63. liburuan inskribatua, 75. folioko atzealdean, 3. inskripzioa, Basauriko Metalaren Atal Sozialeko etxebizitza-kooperatibaren alde, 1970-10-08an emandako salerosketa-eskrituraren arabera.

Bigarrena: Ikertutako ondasunei buruz dauden aurrekari eta datu guztiak erregistroetatik jasotzea, eta horretarako ematen diren ziurtagiriak espedientean sartzea.

Hirugarrena: Prozedura hasteko erabakia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Udalaren egoitza elektronikoan argitaratzea. Buletinaren iragarkia iragarki-taulan jartzea hamabost egunez. Prozedura hasteko erabakia Estatuko Administrazio Orokorrari eta, hala badagokio, autonomia-erkidegoko administrazioari helaraztea. Ikerketa-espedienteak eragindakoei jakinaraztea, ezagunak eta identifikagarriak badira, alegazioa jarri eta egoiki irizitako dokumentazioa eta frogak aurkez ditzaten.

Laugarrena: Jendaurrean jartzeko izapidea irekitzea, hilabeteko epean, argitalpena edo jakinarazpena bukatutzat eman behar den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, ikerketa-espedientearen eraginpeko pertsonak beren eskubidearen alde egokitzen duten guztia idatziz alegatu ahal izan dezaten Udalbatzaren aurrean, beren alegazioen oinarri diren dokumentu guztiekin batera.



Bosgarrena: Alegazioak aurkezteko epea amaituta, frogetarako epea irekitzea hogei-ta hamar eguneko epean. Epe horretan, honako elementu hauek onartuko dira:

- Zuzenbidearen arabera emandako agiri publiko judizialak, notarialak edo administratiboak.
- Perituaren errekonozimendua eta irizpena.
- Lekukoen deklarazioa.

Seigarrena: Frogak egin eta Korporazioko Zerbitzuek baloratu ondoren, espedientearen berri ematea ikerketaren eraginpeko pertsonen eta bertan agertu direnen, 10 eguneko epean alega dezaten beren eskubidearen alde egokitzat jotzen dutena.

Basaurin, 2024ko uztailaren 11n. — Alkatea, Asier Irigorri Basaguren